

Bilbon usteltzen dagoen zaborra jasotzea eskatu du Osasun Sailak

Langileen ordezkariak eta enpresa atzo arratsaldean bildu ziren

Bilboko kaleetan usteltzen dagoen zaborra «lehenbailehen» jasotzea eskatu zuen atzo Osasun Sailak. Astebete dirauen zabor biltzaileen grebaren ondorioz, 2.000 tona zarama inguru pilatu dira. Langileak irtenbidea eskatzeko manifestatu ziren atzo eta arratsaldean enpresarekin bildu ziren.

BILBO

Astebete pasatu da jadanik Bilboko zabor biltzaileek greba hasi zutenetik, eta dagoeneko 2.000 tona zabor inguru pilatu dira Bizkaiko hiriburuko kaleetan.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak kaleetan pilatutako zaborrak biztanleen osasunean eragin ditzakeen «arriskuaz» ohartarazi zuen atzo. Horregatik, Bizkaiko hiriburuko ehun tokitan usteltzen dauden zaborrak «lehenbailehen» biltzea exigitu du Iñaki Azkuna jeltzalea sailburu duen sailak.

Osasun Sailaren jarduera Bilbon gutxieneko zerbitzuak bermatzeko Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuak joan den maiatzaren 28an emandako aginduan kokatzen da. Osasun publikoari buruzko atalak dienez, «Osasun Sailak Bizkaian duen Probintzia ordezkariak, osasun arazoak direla medio, usteltzen hasiak diren zaborrak jasotzea ezinbestekotzat jotzen duenean beharrezko bitartekoak jarriko dira



Zabor pilatuak oinezkoentzat oztopoak dira.

X. SIMAL

agindua berehala betetzeko».

Agindu honi erantzunez, atzo arratsaldean Bilboko Alde Zaharrean zenbait kamioik pilatutako zaborra jasotzeari ekin zioten Polizia Nazionalak eta Udaltzaingoak babesturik.

Construcciones y Contratas S.A. enpresako langileak, bestalde, Bilboko kaleetan barrena manifestatu ziren atzo goizean aste bat bete duen gatazkari irtenbide negoziatua ematea eskatzeko. Berrehun bat langile enpresak Elorrietan duen egoitzatik abiatu ziren eta Bizkaiko hiriburuko er-

digunea zeharkatu ondoren udaletxearen aurrean bildu ziren Udalaren eskuhartzea exigitzeko.

Langileen ordezkariak eta enpresa atzo arratsaldeko bostetan bildu ziren grebari irtenbide negoziatua aurkitu asmoz. Informazio hau osatzeko orduan batzordea eta enpresa oraindik hitz egiten zeuden.

Bilboko Udalak, bestalde, zabor organiko eta inorganikoak bereiztu eta poltsa ezberdinetan jartzea eskatu du. Hondakin inorganikoei dagokienez etxebi-

zitzan bertan gordetzea proposatu dute udal agintariek, «usain txarrik botatzen ez dutelako eta kaleetan, ordea, leku asko betetzen dutelako».

Zabor organikoak, etxebizitzan bertan tratatzea gomendatu dute Udaletik, horretarako zenbait gomendio emanez: poltsa bakarra erabili ordez, bata bestearen barruan sartzea; poltsara hondakin organiko bat botatzen den bakoitzean produktu kloratu solidoaz hautsezatzea eta azkenik, zabor poltsak ahalik eta denbora luzeenean etxean gordetzea.

Itxaropena zabaldu du adituen artean HIESaren kontrako txerto berri batek

BERLIN

Richard von Weizsaeckerren hitzaldiak zabaldu zuen atzo goizean Berlinen (Alemania) HIESaren IX. Munduko Kongresua. Ostirala arte inoiz egin den mediku bilerarik handiena osatuko dute mundu osoko 166 herrialde-tatik Alemaniara bildu diren 15.000 adituek. Bertan alderdi guztietatik aztertuko dute gaitzaren eragina, hasi osasun alorrekoak aztertuz eta gizarte zein hezkuntza alorrekoak aztertzeraino.

Besteak beste, adituek itxaropentsutzat jo duten HIESaren kontrako txerto berria ere aurkeztuko da Berlineko kongresuan. Txertoa Austria eta Suitzako Immuo laboratorioak egindakoa da, eta dagoeneko seropo-


sitiboei egindako proba batzuen bidez baieztatu dute zenbait ondorio on badituela. Nolanahi ere, txertoaren eragin guztiak antzematea ez da oraindik posible, asmatzaileek beraiek adierazita koaren arabera.

Tximino bati jarri zioten aurren txertoa eta ondoren HIESaren birusa sartu zioten. Animalia ez zuen kutsatu gaitzak, enpresak emandako informazioaren arabera. Txertoa hainbat seropositibori jarri zioten ondoren eta optimista izateko moduko emaitzak jaso dituzte medikuek. Txerto honek gaitzetik erabat babestuko duen ziurtatzerik ez dagoela adierazi dute, eta bakuna hartu dutenek eratzun inmulogikoa eman dutela ziurtatu dute.

Atzo saioa zabaldu zuen hitzaldiaren bidez elkartasunerako

deia egin zien «iparraldeko herri aberatsei» Weizsaecker Alemaniako lehendakariak. «Herrialde horiek HIESaren eragin txikia goa dute, baina elkartasuna erakutsi behar diete hegoaldeko herriei, horietan gaitza era larrian hedatzen ari delako», esan zuen Weizsaeckerrek.

Michael Merson Osasunerako Mundu Erakundeko (OME) zuzendariak, berriz, 1.500 eta 2.900 milioi dolar bitartean informazio kanpainak egiteko inbertitzeko eskatu zien herrialde aberatsei, «horien bidez 2000. urtera arteko infekzio kopurua erdira jaitsiarazi daitekeelako», esan zuen. Datuak kezkatzeko modukoak dira, izan ere. Azken aurrikuspe- nek diotenez, gaitzak orain arteko hedapena izaten jarraitzen badi 40 milioi kutsatu izanen dira



Richard von Weizsaecker. PROBST

mendea bukatzerako.

HIESaren IX. Munduko Kongresuak ez zuen antolatzaileek nahi bezalako hasiera izan. Manifestari talde batek aretora sartu eta «Eraitsi ezazue harresi hori» zioen pankarta zabaldu zuten.

Zikloturistak harrapatu zituenak 2,14 eman du alkoholemian

GASTEIZ



Igandean Araban zikloturista talde bat kotxeaz harrapatu eta ondorioz haietako bat hil zuen gazteak positiboa eman zuen alkoholemia probetan Gasteizko Udaltzaingoak emandako informazioaren arabera. J.R.B.I. 23 urteko gazteak 2,14 eman zuen egin zitzaion odol azterketan. Legeak gidariei onartzen dien alkoholemia tasa 0,8koa da gehienez.

Istripua igande goizeko bederatziak laurden gutxiagotan gertatu zen A-2 errepidean, Gardelegi herriaren parean. Bidean 150 bat zikloturista taldea zihoan eta hau zela eta, kontrako norabidean zihoan ibilgailuak gutxitu egin zuen abiada aurretik zetozkion txirrindulei pasatzen uzteko. Maniobra honek martxa geldiaraztera behartu zuen atzean zegoen ibilgailua. Gidari honek ezin izan zuen furgoneta kontrolatu eta ibilgailuak beste karril batetara pasatu eta zikloturista talde bat harrapatu zuen.

Kolpearen ondorioz Jesus Agorreta kirolari arabarra hil zen eta beste sei zikloturista zauriturik izan ziren. Furgonetako gidaria ere eritetxera eraman behar izan zuten. Istripuan izandako zaurituak Gasteizko Txagorritxu eta Santiago eritetxeetara eraman zituzten bertan sendotzeko.

Itoizko urtegi-ko obrak arazoak sortu ditu Alduntzan

IRUNEA



Itoizko Koordinadorak azaldu duenez, atzo goizean arazoak sortu ziren Alduntza inguruan. Bertan urtegiarekin zerikusirik duten lan batzuk ari dira egiten. Bertan lur jausiak izan dira eta poste elektriko bat lurrera erori ondoren Itoizko herria argirik gabe geratu zen.

Koordinadorak aditzera eman duenez, guzti hau ez da kasualitate hutsa. Joan den astean obrak eragindako beste matxura batek argirik gabe utzi zuen herria eta beste poste baten erortzeak, halaber, hiru egunez eten zuen telefono zerbitzua Itoitzen.